

Arlo juridikorako estilo-liburu baten EAEko eta Nafarroako euskarazko gehigarriaren garapenean parte hartzeko lankidetzeta-deialdia



Ikasle Kaiera

Joseba Ezeiza Ramos



0. PROIEKTUAREN TESTUINGURUA




Jakina denez, Zuzenbidearen alorreko profesional batek **komunikaziorako berariazko gaitasunak** izan behar ditu (bere lanbidearekin zerikusia duten zereginak eraginkortasunez bete ahal izateko) eta, horretarako **hizkuntzaren ezagutza jaso**a ere izan behar du; bai, aditasun gutxiko solaskideekin aritzeko (bezeroekin herritarrekin, prentsarekin...) eta baita adituekin aritzeko ere (operadore juridikoak, administrazio teknikoak, enpresa-kudeatzaileak...).

Bestalde, azken urteotan hainbat hitzarmen, erabaki eta lege onartu dira **legegintzan, epaitegietan eta administrazioan erabiltzen den hizkera modernizatzea** eta **arreta bereziz zaintzea** eskatzen dutenak. Izan ere, nazioarte zabalean ulertu da hizkuntzaren modu egokian erabiltzea funtsezkoa dela Zuzenbidearen helburuak erdietsi ahal izateko.

Ildo horretatik, **hainbat plan jarri dira martxan** Europar Batasuneko Parlamentuan eta bestelako erakundeetan; Espainiako Administrazio Orokorrean zein Justizia Administrazioan; eta EAEko Legebiltzarrean, Herri Administrazioan zein Epaitegietan. Baita beste erakunde batzuetan ere: elkargo profesionalak, juristen erakundeak, enpresa pribatuak...

Horrela bada, **hainbat baliabide garatu dira** profesionalei hizkuntza modu egokian erabiltzen laguntzeko eta beren zereginetan modu eraginkorrean komunikatzen laguntzeko: *Europako Erakundeetarako Gida Liburua, A Practical Guide to Lawyering Skills, Libro de Estilo del Ilustre Colegio de Abogados de Madrid, Escribir Bien es de Justicia, Manual de Lenguaje Jurídico-Administrativo, IVAPeko Estilo Liburua, Libro de Estilo para Juristas, Komunikazio elektronikoa. IVAPen gomendioak, Eusko Legebiltzarraren Idazkera Arauak, Justizia Sailaren Estilo Fitxak, Euskara Juridikoaren Ataria, Euskara Justizian Ataria...*

Ikusten denez, hainbeste dira azken urteotan abian jarri diren ekimenak eta garatu diren lanak; zer esanik ez, nazioartean. Alabaina, Zuzenbidearen alorreko profesionalen artean aintzatespen handiena dutenetako bat **Garrigues Fundazioak Aranzadi Argitaletxearekin batera argitaratutako estilo-liburua** da. Liburu horrek bi bertsio ditu: bata **gatzelaniaz** eta bestea **katalanez**. Alabaina, oraingoz ez da euskaraz ere argitaratu.




Hori horrela, eta Euskararen Arauak eta Erabilerak irakasgaiaren helburuak zein diren kontuan hartuta, proiektu honen bidez hauxe proposatuko zaizue: **euskarazko gehigarri baten proposamena** gara dezazuela, Zuzenbidearen alorrean dabilzan profesionalak zein haien bezeroek, euskaraz lan egiteko dauden baliabideen eta eskuarki aintzat hartzen diren irizpideen berri izan dezaten.

1. PROIEKTUAREN XEDEA

2006. Urtean Garrigues Fundazioak *Manual de Estilo Garrigues* eskuliburu argitaratu zuen, juristek zein kriminologiek beren eguneroko eginkizunetan dituzten komunikazio-premiei modu eraginkor eta egokian aurre egiten laguntzeko. Lan hori egiteko, komunikazio juridikoaren inguruan ordura arte egindako ekarpen esangarrienak hartu ziren kontuan; baita hizkera juridikoa modernizatzeko emandako aholkuak ere. Horrela, bada, gaur-gaurkoz, estilo-liburu hau erreferentziazkotzat dute alorreko enpresa eta profesional gehienek. Lan horrek jasotako abegia kontuan harturik, 2010ean *Manual d'estil Juridic* lana argitaratu zuten, Kataluinako jurista aditu eta aritueneren lankidetzarekin. Lan horretan katalanez lan egiten duten profesionalak hizkuntza horretan bikaintasunez jarduteko kontuan izan beharreko jarraibide, eredu eta baliabide ezinbestekoak jaso ziren. Oso harrera ona izan zuen lan honek ere.

Berriki, eta euskara alor juridikoan irabazten ari den aintzatespena kontuan hartuta, [Garrigues Fundazioak](#) beharrezko ikusi du bezero euskaldunei zerbitzu bikainak eskaintzeko bermeak lantzen hastea. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren [LanHitz programari](#) atxiki zaizkio, eta [BIKAIN egiaztagiria](#) lortzeko hainbat ekimen garatu ditu dagoeneko. Hartutako konpromisoen artean hauxe jaso da: "Garrigues estilo-liburuaren ildotik, euskaraz lan egingo duten bufeteko langile eta lankideentzat oinarrizko irizpide, eredu eta baliabideen berri jasoko duen gidaliburu bat osatzen hastea". Lehen urrats gisa, Garrigues estilo-liburuari hurrengo edizioan txertatuko litzatekeen euskarazko gehigarri bat egitea erabaki da.

Ondoren jasotako mezu elektronikoan ikus litekeenez, proiektuaren helburua funtsean hauxe da: euskaraz ikasten edota euskara juridikoa jorratzen ari diren agente eragileen ahaleginak dinamizatzea, sozializatzea eta bateratzea da. Izan ere, jakina denez, euskara juridikoak garapen handia izan du azken 30 urteotan eta, gaur egun garapen-maila egokia duen arren, oraindik nolabaiteko barreiatzea dago irizpideetan, terminologian, lan-metodoetan... Egia da urrats esangarriak eman direla alor honetan euskaraz ari direnen ikuspegiak eta ekarpenak bateratzeko, baina, oraindik ahalegin erantsi txiki bat falta dela ematen du. Horrela bada, proiektu honek ekarpen bat egin nahi du ildo horretan. Horrexegatik, alorreko profesionalak ez ezik, Zuzenbideko ikasleak ere inplikatu nahi dira zeregin horretan.



2. PROIEKTUAREN ABIAPUNTUA, GARAPENA ETA JOMUGA

Esandakoagatik, hauxe litzateke proiektuari abiaburua eta jomuga jarriko liokeen gida-galdera: **zer lege, jarraibide eta baliabide izan behar ditu aintzat bezero euskaldunei kalitatezko zerbitzua eskaini nahi dien profesionalak?** Beraz, egitasmoaren helburu nagusia galdera horri erantzun xehe eta dokumentatua ematea da, beti ere azaldutako agertokiaren testuinguruan. Lan hori taldeka egingo da, eta irakasleak gidatutako prozesu erdi-autonomo baten bidez garatuko da. Funtsean, hiru fase izango ditu prozesu horrek:

- **Testuinguratzeko-fasea:** fase honetan proiektuaren xehetasunen berri izango duzue. Horretarako, lehenbizi, hizkuntzak zuzenbideko profesionalen prestakuntzan duen garrantziari buruzko hainbat bideo-testigantza aztertuko ditugu; arlo juridikoan maiz erabiltzen diren gatzelaniazko eta euskarazko estilo-liburu batzuk gainbegiratuko ditugu; ***Garrigues Estilo Liburu*** bera ere arakatuko dugu... eta horren guztiaren ondoren, proiektuaren lehen jardura burutuko dugu: simulazio-teknikak erabiliz, taldeka Garrigues Fundazioaren proiektuan parte hartzeko deialdia aztertu eta zuen hautagaitza aurkeztuko duzue: aurkezpen-gutuna, zuen curriculumaren laburpena, zergatik hartu nahi duzuen parte, zer ekarpen egin dezakezuela uste duzuen... Ahalegin horren bidez hiru helburu lortuko ditugu: a) mundu profesionalan maiz egin beharreko jardura bat euskaraz egiten trebatuko gara; b) hizkuntza-kalitatea bermatzeko profesionalak erabiltzen dituzten baliabide batzuk ezagutuko dugu; eta c) proiektua bera abian jarriko dugu.

- **Garapen-fasea:** fase honetan hiru lan-talde bereiziko dira. Talde batek arreta jarriko dio euskarak administrazioan duen lege-testuinguruari eta administrazioko jardunari begira garatu diren baliabide eta proposatu diren irizpideei. Bigarren taldeak, berriz, arlo juridikoan euskarak duen egoera eta baliabideak aztertuko ditu. Hirugarren taldeak, azkenik, polizia-kidegoen eta kriminologiaren alorrean euskarak duen normalizazio- eta garapen-maila ikertuko dute. Beraz, azpialde bakoitzak gida galderak biltzen dituen hiru alderdiak landuko dituzte (lege-testuingurua, jarraibideak eta baliabideak), baina jardun-eremu ezberdina jomugan hartua (administrazioa, arlo juridikoa, eta segurtasunaren eta kriminologiaren alorra). Informazioa partekatuzko GoogleDocs aplikazioa, irakasgaiaren bloga eta sare sozialak erabiliko dira. Ahalegin honen bidez hiru helburu lortuko ditugu: a) argituko dugu administrazioan, arlo juridikoan eta kriminologiaren alorrean zer toki duen euskarak (zer lege-babes, zer baliabide...); b) egoera horren inguruko ikuspegiak, balorazioak eta iritziak trukatu ditugu; c) proiektu honetan jomugan hartu dugun gehigarriak zer eduki izan dezakeen ikusmiratuko dugu.

- **Burutze-fasea:** fase honetan proiektuaren azken emaitzak jorratu eta aurkeztuko dira, alegia, fase honetan lan-talde bakoitzak Garrigues estilo-liburuaren euskarazko eranskina garatzeko proposamen bat zehaztu beharko du txosten labur batean. Proposamen horretan talde bakoitzak azaldu beharko du zer gai jorratuko lituzkeen gehigarri horretan; zer iturritara jo daitekeen gai horien inguruko informazioa biltzeko; zergatik iruditzen zaizuen garrantzitsua gai horiek kontuan hartzea; eta abar. Horren bidez, hiru helburu erdietsiko ditugu: a) lan-talde ezberdinek bildutako informazioa eta egindako ekarpenak erkatu eta bateratuko dugu; b) gogoeta egingo dugu profesional euskaldun batek gaur egun dituen premiez eta bere lana egiteko eskuragarri dituen baliabideez; c) guztion artean irudikatuko dugu nolakoa izan beharko lukeen profesional euskaldunen komunitateak beharko lukeenaren moduko estilo-liburu batek.

Horrekin guztiarekin, eta proiektuaren gida-galdera ardatz hartuta, *Euskararen Arauak eta Erabilerak* irakasgaiaren aurreikusitako funtsezko helburu nagusiak erdietsitatzat jo ahal izango dira, alabaina, metodologia parte-hartzaileak baliatuta eta helburu profesionalak jomugan hartuta.

3. PROIEKTUAREN LAN-EGUTEGIA, KONPROMISOAK ETA AITORTZAK

Proiektu honek 5 asteko iraupena izango du eta astero 4,0-6,0 orduko dedikazioa izango du. Guztira, **3 ECTS** dedikazioa eskatuko du. Hori horrela, proiektu honen funtsezko eginkizunek *Euskararen Arauak eta Erabilerak* irakasgaiak duen lan-eskakizunaren % 50 egiaztatuko dute. Alabaina, irakasgaiak barne hartzen dituen beste jarduera gehienek proiektua bera prestatzeko edota amaieran aurkeztu beharreko txostena idazteko edota hornitzeko balioko dute; beraz, esan daiteke proiektua irakasgaiaren egingo den ahalegin osoa bateratzen duela, nahiz eta beste jardueretako batzuek beregaintasuna izan. Irakasgaia osatzen duten jarduerak hiru modulutan banatuko dira.

SARRERAKO MODULUA: Irakasgaiaren **lehen lau astetan** proiektuari ekiteko oso lagungarriak izango diren hainbat jarduera egingo dira. Lehen astean taldekideen ezagutza-mailaren, interesen eta premien **aurre-ebaluazioa** egingo dugu. Bigarren astean, berriz, arlo juridikoan, administrazioan eta kriminologian **euskarak duen egoera** aztertuko dugu. Ildo horretatik, hirugarren astean arlo juridikoan **euskaraz aritzeko izan ohi diren arazoez eta zailtasunez** ariko gara. Eta laugarren astean, azkenik, arazo horiei aurre egiteko **orain arte egin diren lanak eta garatu diren baliabideak** aztertuko ditugu. Horren bidez, nolabaiteko testuingurua jarriko diogu proiektuari. **Zeregin hauek 1 ECTSko balioa izango dute.**

OINARRIZKO MODULUA: Bigarrenik, proiektuari euskarri emateko **oinarrizko modulu bat** garatuko duzue. Modulu horretan euskaraz **normalean egiten diren hutsak** eta **kontuan hartu beharreko estilo-irizpideak** landuko dituzue, interneteko kontsultabaliabideen laguntzaz. Zeharkako modulu honen bidez interneten dauden hiztegi elektronikoak, datu-base terminologikoak, itzulpen-memoriak, corpus juridikoak... erabiltzen ikasiko duzue eta zuzenbideko testu akademiko edota profesional bat egitean gogoan izan beharreko arau eta irizpide nagusiak errepasatuko dituzue. Eraitza gisa **interneten eskuragarri dauden baliabideen gida bat eratuko duzue;** beraz, proiektua bera osatzeko ere balioko dizue, baita aurkeztu beharreko txostenen zuzentasuna eta egokitasuna hobetzeko ere. **Modulu honek 2 ECTSko balioa izango du.**

PROIEKTUAREN MODULUA: Proiektua, beraz, irakasgaiaren **hamargarren astean** abiatuko da. Hortik aurrera, bost aste izango dituzue proiektua garatzeko eta bost aste horietan aurrez aurreko 10 eskola-saio egongo dira (20 ordu presentzial). Lan hau taldeka eta modu erdi-autonomoan garatu beharko da. Gida moduan irakasleak lanerako jarraibideak jasotzen dituen dokumentua banatuko du eta talde bakoitzarekin lan egiteko dinamika adostuko du. Alabaina, proiektuak hainbat mugari izango ditu. Horietako bakoitzean proiektuaren emaitzak laburtzen dituzten dokumentu bat aurkeztu beharko da: a) hamaikagarren astean (testuinguratze-fasearen ondoren) taldeko dokumentu bat eman beharko da, taldeak dituen **asmoak eta zereginak** zehazten dituen; b) hamahirugarren astean, berriz, proiektuaren garapen-fasean bildutako **informazioaren laburpena eta balorazioa** jasoko duen beste dokumentu bat aurkeztuko da; eta c) hamabosgarren astean, azkenik, proiektuaren **konklusioak** jasotzen dituen dokumentua. Dokumentu horiek egiteko jarraibideak irakasleak emango dizkizue, banatuko dituen lan-fitxetan.

Eskema honetan, **proiektua borondatezkoa** izango da. Bakarrik hala erabakitzen duten ikasleek hartuko dute parte proposamen honetan. Alabaina, hala egiten dutenek aitortza berezia jasoko dute parte hartze-agiri baten bidez.

Izan ere, proiektuaren bidez *Euskararen Arauak eta Erabilerak* irakasgaiaren helburuak ez ezik, UPV/EHUren Zuzenbide Fakultateak aurreikusten dituen beste batzuk ere erdietsi ahal izango dituzue, bereziki, **talde-lanean** aritzeko gaitasunekin, **IKTen erabilerarekin** eta **ikaskuntza autonomoarekin** zerikusia dutenak. Proiektu hau gainera, UPV/EHUren Kalitate eta Ikaskuntza Berrikuntzarako Errektoreordetzak sustatutako **IKD irakaskuntza-metodologiaren** arabera da (Ikaskuntza Kooperatibo eta Dinamikoa) eta Zuzenbide Fakultateko Kalitateko, Berrikuntzako eta Irakasleen dekanordetzaren babesa du. Hori dela eta, proiektua garatzeko ERAGIN 4 programaren bidez **UPV/EHUren Hezkuntza Laguntzarako Zerbitzuaren aholkularitza eta jarraipena** izango du proiektu honek. Beraz, proiektuan parte hartzen duten ikasleek, ohiko kalifikazioaz gain, **parte-hartze ziurtagiri berezia** ere jasoko dute, Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa Sailak egina.

4. EBALUAZIOA: ORIENTAZIOA, JARRAIPENA ETA KALIFIKAZIOA

Proiektu honetan hiru ebaluazio-mota bateratuko dira. Batetik, garapen profesional eta akademikorako baliagarria izan daitekeen orientazioa emango da. Bestetik, proiektuak berak barne hartzen dituen eginkizunen jarraipena egingo da. Azkenik, lanaren prozedura eta emaitzak kalifikatu ere egingo dira, unibertsitateko irakasgai bati dagokion moduan.

ORIENTAZIOA: Lehen ere esanenez, proiektuaren helburua jardun profesionalerako prestatzen hastea da; beraz, parte-hartzaileen jokabide autonomoa eta elkarrengileak sustatuko du. Alabaina, horrek parte-hartzaileen konpromisoa eskatzen du eta, mundu profesionalean bezalaxe, aldi-aldi egindako lanaren berrikusketa eta analisia ezinbesteko egiten du. Jardunbide profesionaletarako prestatzeko ahalegin honetan hainbat gogoeta egingo ditugu lanaren emaitzaren zein lana egiteko prozeduraren inguruan. Batzuetan, irakasleen iritzi eta balorazioak jasoko dituzue; baina, beste batzuetan zuek ere hartu beharko duzue parte ikaskideen lanaren eta lan-jardunaren azterketan; betiere, lankidetasunezko giro eraikitzailean. Horrez gain, agian, kanpoko profesionalen baten laguntza ere izango dugu, geure alderdi sendoak eta alderdi ahulak identifikatzen lagunduko diguna. Horrekin guztiarekin nor bere burua balioestea eta norberak dituen ahalbideak eta mugak identifikatzea bilatuko da.

JARRAIPENA: Bestetik, aurreko ataletan ikusienez, proiektuak hainbat fase izango ditu, eta fase bakoitzaren amaieran mugarriztat har daitezkeen dokumentu batzuk aurkeztu beharko dira. Astez aste, irakasleak hainbat jarraibide eta material jarriko ditu zuen eskura urratsez urrats garatuz joango zareten proiektuaren lan-dinamikaren eta arian-arian sortzen dituzuen emaitzekin espero diren helburuak ondo betetzen ari zareten jakin dezazuen. Azken batean, helburua da ahalik eta autonomia handienaz lan egitea, baina, betiere, bermatuta ondo ulertzen duzuela zer den espero dena, eta zein diren kontuan hartu beharreko kalitate-irizpide nagusiak. Esan gabe doa irakaslea bera ere laguntzeko prest izango dela bai aurrez aurreko saioetan eta baita tutoretzetan zein gela birtualeko kontsulta-foretan.

KALIFIKAZIOA: Azkenik, proiektuak kalifikazio bat eskuratuko du, bost irizpideren arabera:

a) Dokumentazio-lanaren kalitatea (% 20): horren bidez ebaluatuko da zein neurritan jabetu diren ikasleak euskarak arlo juridikoan duen egoeraz, eta euskarak zuzenbidearen arloan duen lege-testuinguruak eta testuinguru soziolinguistikoak jardun profesionalean ezartzen dituzten baldintzez eta mugez.

b) Proposamenaren koherentzia eta kalitatea (% 20): horren bidez ebaluatuko da zein neurritan erantzun dioten egindako enkarguari eta zein neurritan jabetu diren zein diren zuzenbidearen alorreko profesionalak euskaraz lan egiteko dituzten premiez .

c) Txostenaren edukia (% 20): horren bidez ebaluatuko da ea zein neurritan integratu diren txostenean proiektuan zehar egindako jardueren bidez sustatu diren estrategia sozialen emaitzak (ikaskideen ekarpenak, ikaskideekin elkarlanean ateratako ondorioak, kanpoko agente eta adituen iritzia eta jarraibideak...) eta zein neurritan izan den ikasle bakoitza gai material hori guztia modu pertsonalizatuan jasotzeko eta aurkezteko

d) Dokumentuaren edizioa eta kalitate linguistikoa (% 20): horren bidez ebaluatuko da aurkeztutako dokumentuak zein neurritan betetzen dituen emandako testuinguruan eskuarki aintzat hartzen diren baldintza formalak eta hizkuntzaren erregistroari eta zuzentasunari dagozkionak.

e) Eranskinaren edukia eta funtzionaltasuna (% 20): horren bidez ebaluatuko da zein neurritan ezagutzen dituen kontsulta linguistikorako eskuragarri dauden baliabideak eta horien artean zein diren euskaraz lan egingo duen profesional batentzako esangarrienak (1. eta 2.gaitasunak).

Ikasleek tarteko txostenak eta ebaluazioak jasoko dituzte egiten ari diren lanaren kalitatearen inguruan, eta, ondorioz, aukera izango dute amaieran dokumentuen bertsio hobetu, zuzendu edota osatuak aurkezteko, eta horren bidez kalifikazioa goitik borobiltzeko.

5. BALIABIDEAK

Proiektua garatzeko laguntza eta euskarri gisa, hainbat baliabide jarriko dira ikasleen eskura:

PROIEKTUAREN GIDA:

Proiektua urratsez urrats egiteko gida bat garatu da. Bertan daude etapa bakoitzean burutu beharreko jardueren inguruko xehetasunak eta ebaluaziorako erabiliko diren irizpideak. Ikaslearen Kaieraren eranskin gisa eskaintzen dira.

IRAKASGAIAREN ESKULIBURUA: <http://testubiltegia.ehu.es/Administrazioko-euskara-jurilinguistikoa>

Eskuliburu honen lehen hiru ataletan jasotzen dira **Euskararen Arauak eta Erabilerak** eta **Euskara Juridikoa I** irakasgaietan egingo diren jarduera gehienak. Horrez gain, hainbat azalpen eta zehaztasun lagungarri ere jasotzen dira bertan. Erreferentzia lagungarria da, beraz. Eskuliburua deskargatzeko, NAREN zenbakia idatzi behar da web-orrian.

GELA BIRTUALA: <https://egela.ehu.es/?lang=eu>

Irakasgaiak gela birtuala izango du EHUren Moodle plataforman. Gela horretan eskegiko dira materialak eta ariketak. Bertan izango dira egindako lanak irakasleari bidaltzeko guneak ere. Laburbilduz, gela hori izango da ikasle-irakasleon bilgunea eta lan-ingurunea.

GARALEX BLOGA: <http://www.ehu.es/ehusfera/garalex/>

Blog hau euskara juridikoaren inguruan EHUen eta EHUtik kanpo egiten diren lanak eta gogoetak zabaltzeko sortu zen. Besteak beste, irakasgaien egiten ditugun lanetako batzuk argitaratzeko ere erabiliko dugu. Horren bidez, bi helburu lortu nahi dira: irakasgaien egindako lanaren emaitzak komunitatearen esku uztea eta lan txukunak aurkezten dituzten ikasleei beren ahalegina saritzea, lanak argitaratuz.

TWITTER KONTUA: http://twitter.com/GARALEX_EHU

Nahi duenak Twitter-en GARALEX_EHU kontuaren harpidetza egin ahal izango du. Kontu hori irakasgaiaren martxa gertutik jarraitzeko eta euskara juridikoaren inguruan sortzen diren albisteak jasotzeko erabiliko dugu.

EUSKARA JURIDIKOAREN ATARIA: <http://www.euskara-juridikoa.com>

Interneteko atari honetan euskara juridikoaren eta administrazioko euskararen inguruko baliabide birtual nagusiak jaso dira: hiztegi elektronikoak, eskuliburuak, legetestuak euskaraz, kontsultak egiteko guneak... UPV/EHUren Zuzenbide Fakultatearen ekimena da, besteak beste, Euskararen Arauak eta Erabilerak irakasgaiari euskarri egokia emateko berriki sortua.

ERANSKINA: PROIEKTUAREN GIDA

Eranskin honetan proiektua garatzeko ikasleei emandako jarraibideak biltzen dira, bost etapatan banatuta:

- 1. Proiektuaren gida-1: ATARIKOAK**
- 2. Proiektuaren gida-2: AGERTOKIA**
- 3. Proiektuaren gida-3: TESTUINGURATZEA**
- 4. Proiektuaren gida-4: GARAPENA**
- 5. Proiektuaren gida-5: AZKEN EMAITZAK**

Jarraibide-orrien ondoren, bertan aipatzen diren lanerako fitxa guztiak eta azken txostena egiteko jarraibideak ere erantsi dira.

1. PROIEKTUAREN GIDA-1: ATARIKOAK

Jardueraren helburua: Proiektuari ekin aurretik, ikaskuntza-eredu kooperatiboak eta talde-lanak izan ditzakeen onurez eta zailtasunez gogoeta egitea.

Epealdia: Azaroak 18/Azaroak 25

Galdera eragilea: Zer abantaila eta zailtasun ditu ikaskuntza-eredu kooperatiboak eta talde-lanak, ikaskuntza-eredu tradizionalen aldean?

Agertokia: Une honetatik lauhilekoaren amaierara arte gelako hainbat ikaskidek proiektu kooperatibo batean parte hartzea erabaki duzue. Alabaina, segur aski, denok ideia eta ikuspegi ezberdinak dituzue lankidetzan aritzeak dituen berezitasunen inguruan. Hori dela eta, proiektuan abiatu baino lehen gogoeta-lan bat egin, eta zuen ikuspuntuak trukatu dituzue.

Egin beharrekoa: Zeregin honek hiru urrats izango ditu.

1. Talde txikitik antolatuko zarete (hiru talde). Talde bakoitzak dokumentu hauetako bat aztertuko du.

1.1. **eranskina.** Proiektugintzarako gaitasunei buruzko dokumentua

1.2. **eranskina.** Talde-lanerako gaitasunei buruzko dokumentua

1.3. **eranskina.** Ezagutza sozialaren eraikuntzarako gaitasunei buruzko dokumentua

2. Dokumentua gainbegiratu ondoren, inpresioak trukatu dituzue. Zerk eman dizue atentzioa gehien? Zer garrantzi dute, zuen ustez, gaitasun horiek Zuzenbideko zein Kriminologiako jardun profesionalari begira? Dokumentuan aipatzen diren alderdietatik zein dira, zuen ustez, hiru garrantzitsuenak?

3. Talde guztiak elkartuko gara (azaroaren 18an) eta talde bakoitzaren gogoetak besteei helarazi ondoren solasaldi bat egingo dugu. Zergatik da garrantzitsua estrategia kooperatibo eta dinamikoak lantzea unibertitatean? Zer berezitasun ditu, zuen ustez, lan egiteko modu horrek? Zer abantaila eta desabantaila izan ditzake? Idatzi konklusioak erantsitako dokumentuan.

Zereginen banaketa:

a) Talde bakoitzean idazkari bat izendatuko da eta berak 1.1. **fitxa** osatuko du. **Fitxa horren fotokopiak ekarri behar dira azaroaren 25erako.** Horrez gain, taldearen emaitzak ahoz aurkezteaz nor arduratuko den erabakiko da.

b) Solasaldiaren egunean, **moderatzailerik bat** eta **bi idazkari** izendatuko dira (talde ezberdinetakoak). **Moderatzaileak** solasaldia gidatu eta denbora kontrolatuko du, eta solasaldiaren amaieran balorazio labur bat idatziko du (1.2. **fitxa**). **Idazkariak**, bestalde, konklusioen fitxa osatuko dute (1.3. **fitxa**).

c) Idazkariak dokumentu guztiak jaso eta irakaslearek helaraziko dizkiote: **hiru taldeen fitxak** (1.1. fitxa), balorazioaren fitxa (1.2. Fitxa) eta **konklusioen fitxa** (1.3. fitxa).

Ebaluazioa: Helburuen betetze-maila egiaztatzeko hiru ebidentzia horiek erabiliko dira. Horien bidez egiaztatuko da ea proiektuan parte hartzea erabaki duten kideak jabetzen diren proiektugintzak beren garapen profesionalerako izan dezakeen garrantziaz, eta ea jabetzen diren lan-dinamika kooperatiboek dituen balizko abantailez eta eskakizunez.

2. PROIEKTUAREN GIDA-2: AGERTOKIA

Jardueraren helburua: Proiektuaren testuinguruaz, helburuez eta eskakizunez jabetzea

Epealdia: Azaroak 18/Azaroak 25

Galdera eragilea: Zer helburu ditu langai proposatzen den proiektuak? Zer da proiektu honetan zehazki egingo duguna? Zer ikasiko dugu horren bidez?

Agertokia: Saio honetan aztertuko dugu zein den burutu nahi dugun proiektuak jartzen digun erroka. Horretarako, proiektuaren agertokia eta galdera eragilea hartuko ditugu abiapuntu gisa. Horien bidez, nor bere motibazioak eta helburu pertsonalak ezarri ahal izango ditu proiektuari begira.

Egin beharrekoa: Zeregin honek hiru urrats izango ditu.

1. Talde txikitan antolatuko zarete (hiru taldetan). ondoren aipatzen diren hiru dokumentuak aztertuko dituzue, eta saiatuko zarete zehazten zein diren proiektuaren ikaskuntza-helburuak.

2.1. eranskina. Proiektuaren galdera eragilea eta agertokia

2.2. eranskina. Titulazioaren gaitasun orokorren dokumentua

2.3. eranskina. Irakasgaiaren gaitasun espezifikoen dokumentua

Bide batez, gogoeta egingo duzue proiektu honek zuei zeuei egin diezazuekeen ekarpen pertsonalaren inguruan. Emaizak 2.1. fitxan jasoko dituzue.

2. Talde guztiak elkartuko gara (azaroak 25ean) eta talde bakoitzaren ondorioak besteei helarazi ondoren solasaldi bat egingo dugu. Zergatik izan daiteke interesgarri proiektu hau garatzea? Zer lotura du irakasgaiaren eta titulazioaren helburuekin? Zer lotura du jardun profesionalarekin? Solasaldiaren moderatzaileak 2.2. Fitxa osatuko du, eta idazkariak, berriz, 2.3. fitxan jasoko dituzte konklusioak.

3. Talde bakoitzak bere hautagaitza aurkeztuko du gutun baten bidez. Alegia, proiektuaren deialdira aurkeztuko du bere burua idatziz, honelakotan egin ohi den moduan; hau da, eskari-gutun baten bitartez. Gutun horretan taldekideen aurkezpena eta CV laburra aipatzeaz gain, deialdian parte hartzeko motibazioaz eta proiektuari egin nahi diozuen ekarpenaz hitz egin beharko duzue Gutun hori irakasleari abenduaren 2a baino lehen bidaliko diozue.

Zereginen banaketa:

a) Talde bakoitzean idazkari bat izendatuko da eta berak **2.1. fitxa** osatuko du. **Fitxa horren fotokopiak ekarri behar dira azaroaren 25erako.**

b) Solasaldiaren egunean, **moderatzailerik bat** eta **bi idazkari** izendatuko dira (talde ezberdinetakoak). **Moderatzaileak** solasaldia gidatu eta denbora kontrolatuko du, eta solasaldiaren amaieran balorazio labur bat idatziko du (**2.2. fitxa**). **Idazkariak**, bestalde, konklusioen fitxa osatuko dute (**2.3. fitxa**).

c) Idazkariak dokumentu guztiak jaso eta irakaslearek helaraziko dizkiote: **hiru taldeen fitxak** (2.1. fitxa), balorazioaren fitxa (2.2. Fitxa) eta **konklusioen fitxa** (2.3. fitxa).

Ebaluazioa: Helburuen betetze-maila egiaztatzeko hiru ebidentzia erabiliko dira: a) lan-taldearen fitxak; b) solasaldiaren emaitzen fitxak; eta c) eskari-gutunak. Horien bidez egiaztatuko da ea argi duzuen zein diren proiektuaren helburuak eta zer lotura duen proiektu honek titulazioaren xedeekin eta alorreko jardun profesionalarekin.

3. PROIEKTUAREN GIDA-3: TESTUINGURATZEA

Jardueraren helburua: Proiektuaren helburuari erantzuteko funtsezkoak diren ingurumariak ikertzea

Epealdia: Abenduak 2 eta 3

Galdera eragilea: Zer lege, jarraibide eta baliabide izan behar ditu aintzat bezero eta herritar euskaldunei kalitatezko zerbitzua eskaini nahi dien profesionalak?

Agertokia: Saio honetan euskarak Zuzenbidearen eta Kriminologiaren alorrean duen testuingurua aztertuko dugu, eta, zehazkiago, saiatuko gara argitzen zein den euskarak alor profesional honetan duen egoera, zein diren profesionalak beren lana egiteko dituzten baliabideak eta zein diren profesional euskaldunek dituzten erronka nagusiak. Horrela, argiago izango dugu zer eduki jorratu beharko lituzkeen jomugan dugun estilo-liburuak.

Egin beharrekoa: Zeregin honek hiru urrats izango ditu.

1. Talde txikitan antolatuko zarete (bost talde). ondoren aipatzen diren hiru ikerketagidoietako bat aztertuko dituzue:

3.1. eranskina: Euskararen egoera arlo juridiko-administratiboan eta kriminologian

3.2. eranskina. Euskara juridikoaren eragile nagusiak: lan-ildoak eta ekarpenak

3.3. eranskina. Euskara juridikoaren baliabideak: erronkak eta premiak

Talde bakoitzak gaiari buruzko informazio jakingarriena bilatu eta bilduko du, eta analisiaren konklusioak GARALEX blogean argitaratzeko moduko artikulua batean jasoko ditu. Emaitzak ikaskideen eskura utziko dituzue gela birtualeko FOROAn.

2. Ikaskideen ekarpena irakurri ondoren, debate labur bat egingo duzue gela birtualean: Zein dira euskaraz arlo juridikoan eta kriminologiaren alorrean gaur egun dituen alderdi sendoak eta ahuleziak? Zer ondorio ditu horrek euskaraz lan egiten duten profesionalentzat? Lehenbizi, talde bakoitzak bere gogoeta egingo du. Eranskinetako baliabideak erabilita. Taldeko idazkariak FORORA igoko du bere ekarpena. Eztabaidaren moderatzaileak ekarpenen laburpena argitaratuko du bertan.

3. Azkenik, talde bakoitzak bere talde bateko testua aztertu eta edukiaren zein idazkeraren aldetik testua hobetzeko proposamenak egingo ditu. Alegia, ikaskideen testuak berrikusi eta, testu horiek hobetzeko proposamenak egingo dituzue, argitaratu aurretik. Testuaren bi bertsioak irakasleari helaraziko dizkiozue, azken orrazketaren ondoren argitara eman ditzan.

Zereginen banaketa: Talde bakoitzak modu autonomoan antolatuko du dokumentazio-, analisi- eta sintesi-lanak.

a) Taldeko kide batek izango du talde-lanaren emaitzak forora igotzeko ardura (abendua 2rako).

b) Beste kide batek izango du, taldearen izenean, eztabaida-forora ekarpen bat egiteko ardura (abendua 9rako)

c) Taldeko beste kide batek koordinatuko du beste taldeko kide batzuek idatzitako testuaren zuzenketa eta bera arduratuko da emaitzak testuaren egileei zein irakasleari bidaltzeaz (abendua 9rako).

Ebaluazioa: Helburuen betetze-maila egiaztatzeko hiru ebidentzia erabiliko dira: a) dokumentazio-lanaren emaitzak; b) eztabaidara egindako ekarpena; eta c) ikaskideen testua hobetzeko proposamenak.

4. PROIEKTUAREN GIDA-4: GARAPENA

Jardueraren helburua: Estilo-liburuak jorratu beharko lituzkeen gaiak zehaztea

Epealdia: Abenduak 9 eta 10

Galdera eragilea: Zer eduki jaso beharko lituzke *Garrigues Estilo Liburuaren* euskarazko bertsioak edota *Euskal Poliziaren Eskuliburuaren* estilo-atalak?

Agertokia: Saio honetan saiatuko gara zehazten zer gai jorratu beharko lituzketen jomugan dugun estilo-liburuak. Horretarako, proiektuaren aurreko atazetan ondorioztatutakoa ez ezik, gaztelaniaz zein euskaraz lan egiteko eskuarki erabiltzen diren hainbat estilo-libururen proposamenak ere hartuko ditugu kontuan. **Amaieran**, *Garrigues Estilo Liburuaren* euskarazko bertsioa egiteko edota *Euskal Poliziaren Eskuliburuaren* estilo-atala garatzeko proposamen bat egingo dugu.

Egin beharrekoa: Zeregin honek hiru urrats izango ditu.

1. Talde txikitan antolatuko zarete. Talde bakoitzak estilo-liburu arakatu, eta dagokion fitxa beteko du (4.1. fitxa). Taldeak berrantolatu ondoren, elkarri azalduko dizkiozue liburu bakoitzaren berezitasunak. Emaitza gisa, estilo-liburuetan jorratu ohi diren gai nagusiak zerrendatuko dituzue (4.2. fitxa). Fitxa guztiak ikaskideen eskura utziko dira gelakideen FOROAn.
2. Ikaskideen ekarpena irakurri ondoren, abenduaren 10ean debate labur bat egingo duzue aurrez aurre: Estilo-liburuetan jorratu ohi diren gaien artean, zein dira zuen ustez jardun profesionalerako garrantzitsuenak? Euskarari bagagozkio, zer gai komeni da bereziki jorratzea, euskararen egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta? Eztabaidaren moderatzaileak ekarpenen laburpena egingo du 4.3. fitxan eta taldekideen eskura utziko du gela birtualeko FOROAn.
3. Azkenik, binaka antolatuko zarete, eta bikote bakoitzak GARALEX blogerako artikulua bat idatziko du estilo-liburuetako baten inguruan. Ikaskideetako batek testuaren lehen bertsioa egingo du, eta bikotekideak testua berrikusi, osatu eta orraztuko du. Lanaren emaitzak ikaskideen eskura utziko dira abenduaren 10ean gela birtualeko FOROAn.

Zereginen banaketa:

- a) Lehen jardueraren zereginak elkarlanean garatuko dira, baina emaitzak arduradunak igoko ditu forora.
- b) Bigarren jardueran, lehenbizi hiru-lau talde txiki egingo dira, gaiaren inguruko lehen gogoeta egiteko. Taldetxo bakoitzak bozeramaile bat izendatuko du debatean parte hartzeko. Moderatzaile batek gidatu eta laburtuko du debatea.
- c) Hirugarren jardueran ikaskide batek idatziko du testua; besteak, berriz, testua orraztu eta berrikusteko ardura izango du.

Ebaluazioa: Helburuen betetze-maila egiaztatzeko hiru ebidentzia erabiliko dira: a) Estilo-liburuaren analisi-fitxak eta estilo-liburuetan jorratu ohi diren gaien zerrenda; b) eztabaidaren konklusioak; eta c) estilo-liburuaren aurkezpen-testuak.

5. PROIEKTUAREN GIDA-5: AZKEN EMAITZAK

Jardueraren helburua: Proiektuaren azken txostena burutzea eta aurkeztea

Epealdia: Abenduaren 10etik 17ra bitartean

Galdera eragilea: Nolakoa izan beharko luke zuen ustez *Garrigues Estilo Liburuaren* euskarazko bertsioak edota *Euskal Poliziaren Eskuliburuaren* estilo-atalak?

Agertokia: Aurreko saioetan hainbat ikerketa- eta gogoeta-lan egin ditugu Zuzenbidearen eta Kriminologiaren alorreko profesional euskaldunek dituzten premien inguruan. Horrez gain, profesional horiei zuzendutako hainbat estilo-liburu eta baliabide ere ezagutu ditugu. Beraz, jadanik badugu Garrigues Fundazioak eta Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak egindako deialdietarako proposamenak garatzeko behar ditugun datuak eta irizpideak.. Hori horrela, proiektuaren azken etapa honek proposamen hori jasoko duen txostena idaztea eta aurkeztea izango du xede.

Egin beharrekoa: Zeregin honek hiru urrats izango ditu.

1. Talde txikitik antolatuko zarete. Talde bakoitzak proposamen-txostenaren egitura erabaki eta idazketa lana egiteko irizpideak zehaztuko ditu. Taldekide bat izendatuko da txostenaren berrikusketa eta zuzenketa egiteko; eta beste bat azken eguneko proiektuaren ahozko aurkezpena egiteko Erabaki guztiak 5.1. fitxan jasota utziko dira.
2. Hurrengo egunetan taldekide bakoitzak egokitu zaion lanaren zatia burutuko du, erabakitako egutegiaren arabera. Abenduaren 16rako prest izango da txostenaren azken emaitza. Txostenaren gorputzak, gehienez ere, 10 orrialde izango ditu, azala, aurkibidea eta eranskinak kenduta. Modu profesionalean editatuta aurkeztuko da. Beranduenez, abenduaren 16rako bidaliko diozue irakasleari azken txostenaren kopia bat formatu elektronikoan.
3. Azkenik, abenduaren 17an proiektu guztien ahozko aurkezpena egingo da. Talde bakoitzeko kide batek egingo du aurkezpen hori. Aurkezpenak entzun ahala, ikaskideek proiektuen balorazio-orriak beteko dituzte (5.2. Fitxa). Bertan, proiektu bakoitzaren alderdi sendoak eta alderdi ahulak jasoko dituzte. Amaieran, balorazio horiek taldekideekin komentatu, eta parte-hartzaile bakoitzak esperientziaren balorazioa jasoko du amaierako gogoetak jasotzeko fitxan (5.3. fitxa).

Zereginen banaketa:

a) Txostenaren idazketa-lanerako hiru rol bereiziko dira: i) ikasle batzuek txostenaren lehen idazketaz arduratuko dira; ii) beste ikasle bat (edo bi) ikaskideek egindako dokumentua berrikusi, zuzendu eta orrazteaz arduratuko d(ir)a; eta iii) beste ikaskide bat ahozko aurkezpenaz arduratuko da.

b) Aurkezpenaren egunean, bestalde, i) aurrez izendatutako ikasleek ahozko aurkezpena egingo dute; ii) beste ikasle-talde batek lanen alderdi sendoak eta ahulak aztertuko dituzte; eta iii) beste ikasle batzuek (talde bakoitzeko ordezkari bat) proiektuen balioespena egingo dute ebaluazio-fitxa bat erabilita.

Ebaluazioa: Helburuen betetze-maila egiaztatzeko hiru ebidentzia erabiliko dira: a) txosten idatzia; b) ahozko aurkezpena; eta c) taldekideen balioespenak.

6. PROIEKTUAREN GIDA-6: LANERAKO FITXAK

1.1. FITXA

TALDEKIDEAK	Idazkaria: _____
--------------------	------------------

IRAKURRITAKO DOKUMENTUA:

HIRU IDEIA NAGUSI: 1.- 2.- 3.-
--

GAITASUN GARRANTZITUSENAK 1.- 2.- 3.-

Zein neurritan dira garrantzitsu gaitasun hauek zuzenbidearen eta kriminologiaren jardun profesionalerako?

1.2. FITXA

MODERATZAILEA	
----------------------	--

TALDEEN IDAZKARIEN AZALPENAK: Taldeetako idazkariak argi eta arin azaldu dituzte ideia nagusiak?
1.-
2.-
3.-

SOLASALDIAREN GARAPENA: Zein izan da solasaldian erabili duzuen gidoia? Zer puntu joratu dituzue?

DENBORAREN ETA TXANDEN KUDEAKETA: Zure ustez etekin ona atera diozue denborari?

1.3. FITXA

IDAZKARIAK	
-------------------	--

Zer berezitasun ditu, zuen ustez, lan egiteko modu horrek?
1.-
2.-
3.-

Zer abantaila izan ditzake?

Zer zailtasun izan ditzake?

Oharrak, iradokizunak, gogoetak...

2.1. FITXA

TALDEKIDEAK	Idazkaria: _____
--------------------	---------------------

Zein ikaskuntza-helburu erdiesteko balio dezake proiektuak?
--

Zeuen interes pertsonalen ikusopegitik, zein dira helburu horien artean pizgarrienak?
--

Zer ekarpen egin dezake proiektu honek fakultatetik kanpoko prestakuntza profesionalari begira?
--

2.2. FITXA

MODERATZAILEA	
----------------------	--

TALDEEN IDAZKARIEN AZALPENAK: Taldeetako idazkariak argi eta arin azaldu dituzte ideia nagusiak?
1.-
2.-
3.-

SOLASALDIAREN GARAPENA: Zein izan da solasaldian erabili duzuen gidoia? Zer puntu joratu dituzue?

DENBORAREN ETA TXANDEN KUDEAKETA: Zure ustez etekin ona atera diozue denborari?

2.3. FITXA

IDAZKARIAK	
-------------------	--

Zergatik izan daiteke interesgarri proiektu hau garatzeak?
1.-
2.-
3.-

Zer lotura du irakasgaiaren eta titulazioaren helburuekin? Zer lotura du jardun profesionalarekin?

Zer lotura du jardun profesionalarekin?

Oharrak, iradokizunak, bestelako gogoetak...

4.1. FITXA

TALDEKIDEAK	Idazkaria: _____
--------------------	------------------

Estilo-liburuaren datu bibliografikoak
Izenburua: Egileak: Argitaratzailea: Argitalpen-urtea: Orrialde-kopurua:

Aurkibidea: atal nagusiak.

Zer bereizgarri du estilo-liburu honek? Zer iruditu zaizue jakingarriena?

4.2. FITXA

TALDEKIDEAK	Idazkaria: _____
--------------------	------------------

Estilo-liburuetan jorratu ohi diren gaiak (modu argian antolatu zerrenda)
--

Zer gai iruditzen zaizkizue garrantzitsuenak?
--

Gai horietatik, zeintzuk uste duzu jorratu beharko liratekeela ezinbestean jomugan dugun estilo-liburuan?
--

4.3. FITXA

MODERATZAILEA	
----------------------	--

Estilo-liburuetan jorratu ohi diren gaien artean zein iruditzen zaizkizue garrantzitsuenak?

Euskarari bagagozkio, zer gai komeni da bereziki jorratzea, euskararen egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta?

Garrigues Estilo Liburuan jorratzen diren gaien artean baten bat kenduko zenukete euskarazko bertsioan?

5.1. FITXA

MODERATZAILEA	
----------------------	--

Txostenaren lehen idazketaren arduradunak, lanaren banaketa eta emate-epeak

Txostena berrikusteko, zuzentzeko eta orrazteko arduraduna(k), eta behin betiko bertsioa onesteko prozedura

Ahozko aurkezpena egiteko arduraduna, eta ahozko azalpena prestatzeko (eta onesteko) prozedura

5.2. FITXA

EBALUATZAILEAK	
-----------------------	--

PROIEKTUA	ALDERDI SENDOAK	ALDERDI AHULAK

5.3. FITXA

EBALUATZAILEAK	
-----------------------	--

a) Dokumentazio-lanaren kalitatea (% 20): horren bidez ebaluatuko da zein neurritan jabetu diren ikasleak euskarak arlo juridikoan duen egoeraz, eta euskarak zuzenbidearen arloan duen lege-testuinguruak eta testuinguru soziolinguistikoak jardun profesionalean ezartzen dituzten baldintzez eta mugez.

b) Proposamenaren koherentzia eta kalitatea (% 20): horren bidez ebaluatuko da zein neurritan erantzun dioten egindako enkarguari eta zein neurritan jabetu diren zein diren zuzenbidearen alorreko profesionalak euskaraz lan egiteko dituzten premiez.

c) Txostenaren edukia (% 20): horren bidez ebaluatuko da ea zein neurritan integratu diren txostenean proiektuan zehar egindako jardueren bidez sustatu diren estrategia sozialen emaitzak (ikaskideen ekarpenak, ikaskideekin elkarlanean ateratako ondorioak, kanpoko agente eta adituen iritziak eta jarraibideak...) eta zein neurritan izan den ikasle bakoitza gai material hori guztia modu pertsonalizatuan jasotzeko eta aurkezteko

d) Dokumentuaren edizioa eta kalitate linguistikoa (% 20): horren bidez ebaluatuko da aurkeztutako dokumentuak zein neurritan betetzen dituen emandako testuinguruan eskuarki aintzat hartzen diren baldintza formalak eta hizkuntzaren erregistroari eta zuzentasunari dagozkionak.

e) Eranskinaren edukia eta funtzionaltasuna (% 20): horren bidez ebaluatuko da zein neurritan ezagutzen dituen kontsulta linguistikorako eskuragarri dauden baliabideak eta horien artean zein diren euskaraz lan egingo duen profesional batentzako esangarrienak (1. eta 2.gaitasunak).

Proiektua	Dokumentazio-lanaren kalitatea (% 20)	Proposamenaren koherentzia eta kalitatea (% 20)	Txostenaren edukia (% 20)	Dokumentuaren edizioa eta kalitate linguistikoa (% 20)	Eranskinaren edukia eta funtzionaltasuna (% 20)	Kalifikazio-proposamena

7. PROIEKTUAREN GIDA-7: amaierako txostena idazteko jarraibideak

1. Hasi aurretik aukeratu eta landu dokumentuaren ezaugarri teknikoak: azala, letra-mota, koloreen erabilera, lerroartea, paragrafoen arteko tartea, buleten estiloa, orrien goiburua eta oina pertsonalizatuko ote duzuen... Gogoratu orain UPV/EHUK baduela tipografia berezi bat euskarazko dokumentuetarako (EHUserif), eta ez dela komeni Office-k eskaintzen dituen txantiloietako bat erabiltzea pertsonalizatu gabe. Edonola ere, dokumentuak soila eta diskretua izan behar du. Azalak sinplea baina ondo pentsatua izan behar du.
2. Testua idazteko orduan kontuan izan gutxi gorabehera zenbateko luzera izan behar duen atal bakoitzak. Horrez gain, saiatu testua orriaren tamainara doitzen, eta, besteak beste, paragrafoak orrialdena bertan osorik amaitzen. Ondo pentsatu izenburuen ezaugarri tipografikoak zein izango diren, eta zaindu izenburu guztiek koherentzia formala izan dezaten.
3. Oso garrantzitsua da erreferentziak ondo jasoak egotea, dela amaierako zerrenda bibliografiko batean, dela oin-ohar gisa, dela hiperlotura gisa. Baina bermatu erreferentzien datuek (legeen izenak, URLak, egiletza datuak...) ez dezatela testuaren haria eta irakurketa oztopatu edota eteten. Paragrafo guztiek, bestalde, antzeko luzera izan beharko lukete.
4. Paragrafoen barne-egitura ere ondo zaintzea komeni da: sarrerako esaldi bat, garapenerako 1-3 esaldi eta itxiturako beste bat. Paragrafo bakoitzak berezko izatea eta erabateko beregaintasuna izan beharko luke, alegia, argi ikusi behar da zein den paragrafo horrek garatzen duen ideia bere osotasunean, baina, baita ideia horrek aurrekoekin eta ondorengoekin duen lotura.
5. Ez da komeni gehiegi luzatzea. Honelako lanen irakurleek antzeko dokumentu asko irakurri eta aztertu behar dituzte. Beraz, ez luzatu bigarren mailako kontuekin eta joan hari-harira. Ez da beharrezkoa lege guztiak, baliabide guztiak, interneteko helbide guztiak... jartzea. Batzuetan, hobe da interneten egon daitekeen beste dokumentu baten erreferentzia ematea. Adibidez, erraz aurkituko dituzue euskara juridikoaren alorrean lan egiten duten eragileen txostenak edota eskura dauden kontsultabaliabideen zerrendak. Eraginkorragoa izan daiteke erreferentzia horiek ematea, zerrenda eta azalpen amaigabeak egitea baino.
6. Ez ahaztu zein den proiektu honetan zuei legokizuekeen eginkizuna: bekadun bezala egingo zenukete lan, baina beka honen helburua ez da zuen ikasketetan sakontzeko aukera ematea, baizik eta zuek duzuen prestakuntzari etekin aplikatua bilatzen laguntzea. Alegia, garrantzitsua da argi geratzea zuek gaia "kontrolatzen" duzuela; baina, aldi berean, ezin duzue ahaztu alorreko profesionalen eta hizkuntzalarien aginduetara egingo duzuela lan.

7. Testua goitik behera eta behetik gora errepasatu behar da. Ziurtatu behar duzue testua erraza irakurtzen eta ulertzen dela; esaldiak sinpleak eta ondo eraikiak daudela; ez zaretela lexikoarekin nahastu; eta testuak ez duela ageriko akats gramatikal edota ortografiko larririk. Beraz, denbora gorde lan honetarako.

8. Azkenik, honelako lanetan oso komenigarria da estilo neutroa eta inpersonala erabiltzea, baina, aldi berean, igar dadila zuen inplikazioa eta interesa. Beraz, bakarrik jaso konbentzimendu osoz eta zalantzarik gabe baieztatu eta agindu ditzakezuen gauzak, baina dena modu inpersonal eta leunean azaldu; “behatzak harrapatu gabe” alegia.

8. PROIEKTUAREN GIDA-7: amaierako txostena egiteko eskema-ereduak

A aukera: Zuzenbidearen jardun-eremurako proposamena

1. Sarrera

1.1. Txostenaren testuingurua:

- Hizkuntzaren eta komunikazioaren garrantzia zuzenbidearen jardunean
- Hizkuntzaren kalitatearen garrantzia segurtasun juridikoaren berme gisa
- Euskara erabiltzeko eskubidea bermatzeko konpromisoa

1.2. Txostenaren helburuak

1.3. Talde-eragilearen inguruko xehetasunak

2. Proiektuaren justifikazioa

2.1. Euskararen lege-testuingurua zuzenbidearen jardun-eremuan

2.2. Euskararen normalizazioa eta garapena Zuzenbidearen jardun-eremuan

2.3. Euskararen kalitatea: helburu estrategikoak (ESEP, EJ normalizazio-plana, Justizia Sailaren normalizazio plana...)

2.4. Euskararen kalitatea zuzenbidearen jardun-eremuan sustatzeko ahaleginak: eragileak, ekimenak eta emaitzak.

2.5. Ondorioak: zuzenbidearen alorreko estilo-liburu baten premiaren justifikazioa

3. Proiektuaren oinarriak

3.1. Zuzenbideko profesionalen hizkuntza-ezagutzak: zer jakin behar duen alorreko profesional batek bere lana berme osoz egiteko

3.2. Zuzenbideko profesionalen hizkuntza-gaitasunak garatzeko baliabideak: zenbait lan esangarrien aipamena

3.3. Euskaraz eskuragarri dauden baliabideen azterketa: hutsuneak eta erronkak

3.4. Garrigues Estilo Liburuaren bereizgarriak

3.5. Euskarazko estilo-liburu bat garatzeko abiapuntuko irizpideak

4. Proposamena

4.1. Euskarazko estilo-liburuaren helburuak

4.2. Estilo-liburuaren edukia eta egitura

4.3. Estilo-liburuaren ezaugarri teknikoak

5. Laburpena eta ondorioak

B aukera: Kriminologiaren jardun-eremurako proposamena

1. Sarrera

1.1. Txostenaren testuingurua:

- Hizkuntzaren eta komunikazioaren garrantzia Kriminologiaren eta polizia-lanaren jardunean
- Hizkuntzaren kalitatearen garrantzia komunikazioaren eraginkortasunaren eta segurtasun juridikoaren berme gisa
- Euskara erabiltzeko eskubidea bermatzeko konpromisoa

1.2. Txostenaren helburuak

1.3. Talde-eragilearen inguruko xehetasunak

2. Proiektuaren justifikazioa

2.1. Euskararen lege-testuingurua Kriminologiaren eta Poliziaren jardun-eremuan

2.2. Euskararen normalizazioa eta garapena Kriminologiaren eta Poliziaren jardun-eremuan

2.3. Euskararen kalitatea: helburu estrategikoak (ESEP, EJ normalizazio-plana, Justizia Sailaren normalizazio plana...)

2.4. Euskara juridikoaren kalitatea sustatzeko ahaleginak: eragileak, ekimenak eta emaitzak.

2.5. Ondorioak: kriminologiaren eta poliziaren alorreko estilo-liburu baten premiaren justifikazioa

3. Proiektuaren oinarriak

3.1. Kriminologiaren eta Poliziaren profesionalen hizkuntza-ezagutzak: zer jakin behar duen alorreko profesional batek bere lana berme osoz egiteko

3.2. Kriminologiaren eta Poliziaren profesionalen hizkuntza-gaitasunak garatzeko baliabideak: zenbait lan esangarrien aipamena

3.3. Euskaraz eskuragarri dauden baliabideen azterketa: hutsuneak eta erronkak

3.4. Euskal Poliziaren Eskuliburuaren

3.5. Euskarazko estilo-liburu bat garatzeko abiapuntuko irizpideak

4. Proposamena

4.1. Euskarazko estilo-liburuaren helburuak

4.2. Estilo-liburuaren edukia eta egitura

4.3. Estilo-liburuaren ezaugarri teknikoak

5. Laburpena eta ondorioak